


Heri Aldizkaria

Otamendi

1997ko iraila / 27. alea

Estitxu Sudupe,
Donostiako Orfeoian
kantuan



Asier Otamendi, Euskal
Herriko Bertso
Txapelketan



Aldizkari honek Euzko
Jaurlaritzako Kultura Saila eta
Hizkuntza Politikarako
Sailordetzaren diru laguntza
jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako
Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Departamenduaren
diru laguntza jaso du



Aldizkari honek Urretxuko
udalaren diru laguntza jaso du



Aldizkari honek Zumarragako
udalaren diru laguntza jaso du



Ezkontza

Erregearen alaba gazteena, lñaki Urdangarin zumarragarrekin ezkondu behar zuela jakin zenetik, komunikabide ezberdinak izan dira Zumarragan, senargaiaren berri izan nahian. Zumarragan ez ohikoak diren kazetari eta komunikabide munduko makina bat langile ikusi ahal izan

Irizarri

Kaixo, Jose Julian Irizar: Ezer baino lehen, nire elkartasuna adierazi nahi dizut duela hilabete inguru epai berrian hilabeterako kargu gabetzea ezarri zizutelako. Eta zergatik eta 1994an, Zumarragako alkate zinela, Udalean kintoen zerbitzua kentzeagatik, Espainiako Armadarekin ez kolaboratzeko. Animala epailea! Neure elkartasuna, beraz, foru diputatu jauna eta segi horrelaxe, animorik ez zaizula falta erakutsi zenuen eta irailaren 5eko prentsaurrekoan: "Alderdiak bere oinarri antimilitaristak berresten ditu. Gure bakezaletasuna erradikala da. EAko alkate guztiek segituko dute ildo honetatik, alkaterik gabe gelditzen bagara ere"...

Baina, okasioaz baliatuz, beste gauza bat ere esan nahi dizut bada, Jose Julian. Izan ere, ez zitzaizkidan asko gustatu zure prentsa agerraldi hartako zenbait esaldi:

"Hauteskunde kanpainan PPK

esan zuen soldadutza historia bihurtuko zela laster, baina oraindik ez du ezertxo ere egin. Aznarri galdetu beharko zaio ea beste lau, zortzi edo hamar urte itxaron beharko ote dugun hark hauteskundeetan agindutako Armada profesionala sortzeko. Soldadutzak bizirik irauten duen bitartean arazoak tinko segituko du"...

Begira, Jose Julian, arazoak ez du tinko segituko soldadutzak irauten duen bitartean soilik, umil gogoratu nahi baitzut helburua ez dela soldadutza desagertzea eta kitto, Armada desagertzea baikik, betiere Euskal Herri desmilitarizatu bat izateko.

Eta, Jose Julian, okasioaz abusatuz, beste gauzatxo bat, uzten badidazu:ea animatzen dituzun nire herriko EAko zinegotziak zerbait egitera, Armadaren eta Kode Penal berriaren kolaboratzaile finak direlako.

Bon, besterik gabe eta adeitasunez, intsumiso azpeitiar bat.

Enekoitz Esnaola

OTAMOTZ hilero doan etxean jaso nahi nuke, edo ondorengo lagunari oparitu nahi nioke

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:..... **K.P.:**.....

Bidali datuak Zintzo Mintzora, Labeaga 12, Urretxu edo deitu 72 57 75 telefono zenbakira.

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel:725775 **Koordinatzailea:**Amaia Pildain. **Erredakzio kontseilua:** Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:**Jonmikel Insausti. **Inprimategia:**GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**1.300 ale. **Edizio digitala:**<http://www.geocieties.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain harzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZUMARRAGA UDALA
KULTURA ZERBITZUA

Informazio Historikoaren Aldizkaria
REVISTA DE INFORMACION HISTORICA N.º 1

ZUMARRAGA EZAGUTZEN

Miguel López de Legazpi

ANTONIO PRADA

El 20 de agosto de 1572 murió en Manila Miguel López de Legazpi. El 2 de octubre de 1897 se inauguró, en el centro de la hoy Plaza de Euskadi de esta villa de Zumarraga, la estatua de Legazpi.

Así pues, en este año 1997 Zumarraga rememora, por una parte, el 425 aniversario de la muerte del hombre que, sin ningún tipo de dudas, es su hijo más universal; y por otra parte, se cumple también el centenario de la instalación de su estatua en uno de los lugares más importantes, urbanísticamente hablando, de nuestra villa.



Miguel López de Legazpi 1572ko abuztuaren 20an hil zen. Manilan. Eta 1897ko urriaren 2an inauguratu zuten, gaur egun Zumarragako Euskadi Enparantza den horren aurre-erdian, Legazpiaren estatua.

Háizek 1997an bi gauza gogoratuko ditugu Zumarragan, herriak izan duen semeik umbertsalenaren heriotzaren 425. urteurrena batez, eta herriko tokirik garrantzitsuenetako batean haren estatua kokatu zen egunaren mendeurrena bestetik.

Baina, nor izan zen Miguel López de Legazpi?, zerpik izan zen garrantzitsua?, zer dakigu hari buruz zumarragarrok, haren jaiotetxea eta estatua herrian ditugula, eta Filipinen kolonizatzailea izan zela alde batera lagata?

Izan ere, horren berri apakirik bagenuen baina, nolako gizona izan zen?, zein asmo zuen gogoaren eragile?, zerpik izan zen Filipinatar?, non bizi izan zen?, zer egin zuen bere bizitzaren urteik gehienetan?, Zumarragan ba al da oraindik haren zerbit, etxebiz eta beraren ohorez jarritako estatuz gain?

Pero, ¿quién fue Miguel López de Legazpi?, ¿por qué fue importante?, ¿qué sabemos de él los zumarragarros, además de saber que contamos en la villa con su casa natal y con su estatua, y de que fue el colonizador de las Islas Filipinas?

Sabemos eso, pero ¿sabemos qué clase de hombre era?, ¿qué afanes tenía?, ¿por qué se fue a las Islas Filipinas?, ¿dónde vivió y qué hizo la mayor parte de su vida?, ¿quedó algo de él en Zumarraga, además de su casa y la estatua que le honra?

Sabemos muy poco de él, como no podía ser de otra forma si tenemos en cuenta que estamos hablando de una persona del siglo XVI, que de ese siglo no conocemos muchas cosas, y que, además, no hay una abundante bibliografía sobre personas que no ocupasen un gran cargo en los puestos más altos de las monarquías europeas de la época.

De todas formas, juntando documentos de archivo y bibliografía ya editada y no excesivamente conocida, podemos hacernos una idea acerca de este hombre y de su personalidad, la cual, en cierto sentido, y por lo que respecta a los zumarragarros, quisiera nos ayude a comprender algo mejor su obra y la época en que vivió.

Oso berri gutxi dugu gizon hari buruz, eta ezin bestela izan, zeren eta XVI. mendeiko pertsona baten gorri-behenez ari baizara, eta mende hori buruzko argibide askorik ez izateaz gain bibliografia ere eskasa da, garai hartako europar monarkietan goienera iritsi zirenekin buruz izan ezik.

Ezozia ere, arbasokorri argirik eta dagoeneko argitaraturik egon arren oso ezaguna ez zaigun bibliografia elkartzurik, gizon hori eta gizon horien nortasunari buruzko itziri bat oso dezakegu; eta, behar bada, bibliografi izango zaigu zumarragarrok, bizitzan zehar zer egin zuen eta nolako garaiari bizi izan zen ulertzen ahalgintzen garenen.

Aldizkari historikoa Zumarragan

Antonio Pradak, Geo-grafia eta Historian doktorea denak zuzendu eta koordinatutako Zumarragako "Informazio historikoaren Aldizkaria"ren lehenengo alea Zumarragako etxeetara banatu da. Argitalpena hilabetezkoa edo bihilabetezkoa izango da eta Udaleko Kultura Batzordearen babesa izango du.

Ale bakoitzean Zumarragako historiari buruzko gai bakarra jorratuko da, eta banatu den lehen alea Miguel Lopez de Legazpi dago eskainia. Bere ohorez Zumarragako plazan jarritako estatuaren mendeurrena urriaren biam bete dela eta bere heriotzaren 425. urteu-

rena abuztuaren 20an bete zela aprobetxatuz, aukeratu du antonio Pradak gaia. Ale honetan Miguel Lopez de Legazpi buruz dagoen bibliografiaren laburpena baino gehiago irakur daiteke. Gaiari buruz aurretik idatzitako beste egile batzuk aztertu ez dituzten zenbait artxibo arakatu ditu, dokumentu berezi ugari begiratu ditu, Miguel Lopez de Legazpi buruzko datu berriak lortuz, gainera aurreko egileek egindako zenbait akats ere zuzendu dira.

Aldizkari historikoaren hurrengo aleek Zumarragako artxibo historikoa izango dute informazio iturri nagusi.

Bolondreseko Suhiltzaileentzako ikastaroa

Mankomunitateak Eskualdeko Suhiltzaileen zerbitzua osatzen duten bolondres kopurua handitu nahi du. Horretarako interesatu guztiei aditzera eman nahi die prestakuntza ikastaro bat antolatu dela. Ikastaroan parte hartzeko baldintzak honako hauek dira:

Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako biztanlea izatea, 18 eta 55 urte bitarteko adina izatea eta B-1 gidatzeko agiriaren jabe izatea.

Azterketa medikua egin behar da zerbitzua eskaini ahal izateko gaitasun fisiko eta psikiko egokia egiaztatzeko.

Era berean, zerbitzu horretan sartu nahi duten guztiek, zerbitzurako deia egiten zaienean ez dutela inolako lan-arazorik izango egiaztatuta behar da ikastaroa egin aurretik.

Ikastaroan parte hartzeko eskari-ordirik Mankomunitateko edozein udaletako Erregistroan aurkeztuko dira, epea urriaren 31n bukatuko da.





Goiargi abesbatzak Toledon kantatu zueneko argazkia.

Goiargi eta Goiargi Kimets abesbatza Udazkeneko XII. Musika Zikloan

Goiargi eta Kimets Goiargi abesbatzek hasiera eman zioten urriaren 12an San Martin de Tours elizan egiten ari den Udazkeneko XII. Musika zikloari. Musika Ziklo hau lau igandetan luzatuko da eta Euskal Herriko eta Argentinako hiru abesbatza izango dira Urretxun.

Urriaren 19an Donostiako Kanta Kantemus koruak kantatuko du, urriaren 26an, berriz, Bilboko koruak eta azaroaren 2an, Argentinako *Coro Juvenil del teatro San Martin* abesbatzak. Azken hauek Tolosako Lehiaketako partaideak dira.

Eskola kiroleko begiraleentzako ikastaroa

Zumarraga-Urretxuko Euskara eta Kirol Zerbitzuek antolatuta eskola kiroleko begiraleei zuzendutako ikastaroa izan da urriaren 3, 4 eta 10ean Garciaalde Lizeoan. 35 begirale inguruk hartu dute parte ikastaroan eta oinarriko prestakuntza fisikoa, taldekako eta banakako kirolen didaktika, lehen laguntzak, eskola kirolaren helburuak eta kirol terminologia landu dituzte.

Irakaslegoa, Oñatiko eskola kiroleko koordinatzailea, Oñati eta Bergarako kirol teknikariak eta Eibarko kiroldegiko sendagilea izan dira.

Gernikako Arbola plaza berraldatzeko ideiak

6 lan aurkeztu dira udalak, Gernikako Arbola plaza berraldatzeko egindako ideia lehiaketara. Epaimahaiaren esanetan kalitate handikoak izan dira lan guztiak. Victor Hernandez urretxuarra izan da irabazlea.

Lanbica
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

LIBURUENDIA
GANBARA
Labeaga, 52
☎ eta faxa: 72 50 45

Estitxu Sudupe Donostiako Orfeoiko partaidea

Bartzelonan, Iñaki Urdangarinen ezkontzan eta Madrilen Teatro Realaren inaugurazioan kantatu berri du urretxuarrak

17 urterekin KIMETS Abesbatzako partaidea zela, hasi zen Donostiako Orfeoian soprano moduan kantatzen, orain 22 ditu eta enpresaritzako hiru-garren maila ikasten ari da Donostian. Kantatzea ikaragarri gustatzen zaio eta Orfeoiko partaidea izatea zenbaitetan sakrifizioa dela esaten badu ere, bertan aritzeak merezi duela oso garbi du. Gustura dago urriaren 6an Madrilen, Berlingo Filarmonikarekin eta Claudio Abbadorekin batera kantatu zuelako Orfeoia, bizitzan behin izaten den aukeretako bat omen da hau. Anoretan, Orfeoia bere mendeurrenean egin zitzaion omenaldian abestu du orain arte gustoren, hunkigarria izan omen zen bertako giroa.

Nola hasi zinen orfeoian?

Lehenengo solfeoa ikasi nuen. 4. maila egiten ari nintzela, 15 urterekin, KIMETS abesbatzan hasi nintzen abesten. Bertan bi urte neramatzala, Orfeoiko zuzendariak orduko KIMETSeko zuzendariari, Xabier Barriolari, sei neska eskatu zizkion soprano bezala Orfeoiarekin Madrilerara abestera joateko. Kasualitatez, Madrilerara joan ginen sei nesketatik, Araitx Urkiola eta biok urte hartan Donostiara gindoazen ikastera. Orfeoiko zuzendariak hau jakitean, Orfeoiko partaidea izateko probak egingo zizkigula esan zigun, hauek pasa eta harrez gero Orfeoian gaude biok. Bost urte daramazkigu bertako partaidea bezala. Kasualitatea izan zen KIMETSera abeslari bila etortzea eta kasualitate handiagoa izan zen urte hartan

bertan Donostiara ikastera joan behar izatea, suertea.

Araitx Urkiola zumarragarrak, zu urretxuarrak, nongo jendea dago Orfeoian?

Abeslari gehienak donostiarrak dira, baina probintziako abeslari ugari ere bagaude. Legazpiar bat, beasaindarrak, ordiziarrak, azpeitiarrak, Pasaia, Irun, Oretakoak...

Musika mailan ikasketa handia al dute Orfeoiko partaideek?

Gehienek solfeoa jakiten dute Orfeoian sartu aurretik, baina bada solfeorik ezagutu gabe sartu denik ere. Hala ere partaidea izateko baldintza da solfeoa ezagutzea eta beraz, ez dakitenez, ikasi egin behar dute. Gainera, orfeoian sartu eta urte batzuetara orfeonista izateko probak egiten zaie partaide guztiei, ordurako solfeoa jakin behar da.



Lanbidez, berriz, denetik dago, ikasle asko gaude, etxeoandreak, musika irakasleak, baina musikarekin zer ikusirik ez duten lanbide-tan dabilzanak ugari dira Orfeoian.

Zenbatero entsaiatzen duzue?

Astean hiru egunetan entsaiatzen dugu, egunean bi orduz. Batzutan, bereziki

azterketa garaian, gogorra egiten da taldean jarraitzea eta ikasleok otsaila eta ekainean entsaiotetara joateari eta kantatzeari utzi egiten diogu azterketak bukatu arte. Aurtengo udan mendeurrena dela eta kontzertu asko eman ditugunez, egunean hiru ordu entsaiatzen aritu gara.

Mendeurrenak beraz, lan handia eman dizue.

Kontzertu gehiago izan ditugunez, entsaio gehiago egin behar izan ditugu. Anton Garcia Abrilek *Lur kantak* prestatu ditu Orfeoiaren men-deurrenerako. Oso obra polita izan arren, zaila denez, lan handia egin behar izan dugu behar bezala prestatu ahal izateko.

Non kantatu duzue aurten?

Aurten bereziki Donostian kantatu dugu. Madrilera ere joan gara, urtero joaten gara Auditorio Nacionalean kantatzera, abenduan ere berriro joango gara, Segovian eta Cuencan ere izan gara. Duela bi aste Bartzelonan egon ginen, Iñaki Urdangarin eta Infantaren ezkontzan kantatzen eta duela astebete Madrilgo Teatro Realaren inaugurazioan ere kantatu dugu.

Zer moduz ezkontza egunean?

Korrika eta presaka ibili ginen, Madrilen geunden eta ezkontza bezperan, entsaioa genuen, entsaioa bukatu orduko Bartzelonara abiatu ginen, gaueko ordu batean iritsi ginen. Ezkontza bukatu orduko autobusa zain genuen

Madrilera bueltan joateko, aireportuko komunetan aldatu behar izan ginen erropaz.

Madrilen estima handia diote Donostiako Orfeoari, kontzertu amaieran asko txalotzeaz gain, autografoak ere eskatu izan dizkigute inoiz.

Zer moduz moldatzen zara ikasketekin jarraitu eta Orfeoian kantatzeko?

Denbora asko kentzen dizun afizioa da hau, baina merezi du. Entsaioetatik etxera iristen naizenerako gaueko 11:30ak izaten dira, asteburu askotan ere kanpoan ibili behar izaten

dugu kantuan eta askotan klaseak eta lana galdu behar izaten dugu kantatzeagatik, baina benetan merezi du, niri kantatzea gustatzen zait eta askotan oso musikari onekin kantatzeko aukera ere ematen du afizio honek.

Non kantatu duzu gusturen?

Dudarik gabe aurtengo udan Anoetan, Orfeoari omenaldia egin zitzaionean, hunkigarria izan zen benetan, ikuslegoaren txalo zaparradak, bertako giroa, zoragarria izan zen. Urriaren 6an, Madrilen *La segunda de Malher* obra kantatu genuen Claudio Abbadorekin eta Berlingo Filarmonikarekin, hori ere ikaragarria izan zen, bizitzan behin izaten da maila honetako musikariekin batera abes- teko aukera. Beraz, sakrifizioak merezi du.

Zer moduzkoa izaten da ikusleen jarrera?

Hemen oso estimatuak gara, baina Madrilen ere asko maite gaituzte. Madrilgo Auditorio Nacionalean kantatzen dugunean asko hunkitzen gara. Jendearen animoak eta txalo zaparradak ikaragarriak izaten

dira, ez dakit horrenbeste merezi dugun, autografoak ere eskatzen dizkigute Madrilen

Musikatik bizi daiteke?

Agian bai, baina osoa zaila da. Irakaskuntzan badago musikatik bizitzerik baina abeslari moduan, solista moduan oso zaila da. Oso ona izan behar duzu eta kanto ikasi behar da, musikara dedikatu, musika ikasi.

Zumarraga Urretxun, nola ikusten duzu musika mundua?

Ondo, nahiko ondo. Koroak daude, Urretxuko festetan lagun talde desberdinek hartu zuten lehiaketan parte, txistularien alardea izaten da, banda eta musika tailerra daude... Musika munduan asko mugitzen den jendea dago herrian.

Zein ekitaldi dituzue aurretzean?

Datozen hiru asteburutan Madrilera joango gara, Fallaren *La Vida Breve* obra interpretatzea, urtea bukatu aurretik, Berlinera, urtarrilean Kanarietara eta otsaila inguruan Alemaniara joateko asmoa dugu.



Estitxu Sudupe Donostiako Orfeoiko gainontzeko partaideekin.

Argazkia: Kote Cabezudo

170 abeslari daude Donostiako Orfeoian, entsaiotara 120 lagun joaten dira eta kontzertuetara 90 lagun, gehienak emakumeak.

Asier Otamendi Euskal Herriko bertso txapelketaren atarian

Igandean, hilak 19; Asier Otamendik Hendaian jokatu-ko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketan hartuko du parte. Arabako txapelduna buru belarri aritu da prestaketa lanetan azken hilabetean, urduri samar dago baina helburua bere buruarekin gustura geratzea da.

Zer esperantza duzu txapelketarako?

Nire helburua lan ona egitea da. Nire buruarekin gustura geratzea nahi nuke, horrekin nahikoa dut eta hortik aurrerakoak ongi etorriak izango dira.

Prestaketa berezirik egin al duzu?

Azken hilabetean bakarrik. Errimak begiratzen ibili naiz liburuetan. Doinu berezi edo berririk ez dut prestatu.

Presio berezirik ematen al du Arabako txapelduna izateak Txapelketa honi begira, urduri al zaude?

Urduritasuna nabari dut. Oso jende onak hartuko du parte eta nik ez dut nire burua hauetako askoren artean ikusten. Nik neuk

ez diot garrantzirik ematen Arabako Txapelduna izateari, baina hala ere nire inguruan jendea etengabe ari zait lan txukuna egiteko esaten, eta horrek, presioa sortzen du.

Txapelketen aldekoa zara?


Bai aldekoa naiz, horren ezagunak ez diren bertsolariak ezagutzarazteko balio dute.

Ze lortu nahi duzu txapelketa-ekin?

Ezer berezirik ez, saio arrunt bat balitz bezala kantatzen saiatuko naiz, gainera badakit ez dudala urrutira iritsi behar.

Nortzuk izango dira hiru lehenak?

Egaña, Lizaso eta Iturriaga, orden horretan.



ITURGINTZA




LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain
gauzkazu

Deskargarako bidea, z/g ☎ eta faxa 725459

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

 *fundazioa*
fundación



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

☎ 72 04 23

Euskara urratsez urrats ikasten

Matrikulazioa ona izan da bi euskaltegietan

Duela urte batzuetatik hona euskararen erabilpena areagotu egin da Urretxun eta Zumarragan, batez ere gazteen artean, baina oraindik herriak erabat euskalduntzeko asko falta da. Lan horretan dihardute urte mordoska batean bi herrietako euskaltegiak, Udal Euskaltegia eta AEK Bisasti Euskaltegia.

Hizkuntza berri bat ikastea ez da bat ere lan erraza, hizkuntza berri hori ulertzea eta hitz egitea urteetako lana da, baina hala ere AEK Bisasti Euskaltegian eta Udal Euskaltegian 150 lagunek eman dute izena euskara ikasteko asmoz. Bertan lehen urratsetik EGA maila bitarteko eskolak ematen dira, eta deus ere ez dakitenak, euskaltegian azken urteotan euskara ikasten jardun dutenak eta garai batean jakin arren berreuskalduntzera edota alfabetatzera dihoazenak elkartzen dira, bakoitza bere ezagutzaren arabera, dagokion urratsean ikasten duelarik. Aipagarria da aurten Udal Euskaltegian, Urretxu eta Zumarragara bizitzera etorri berriak diren errusiar batek, suitzar batek eta Logroño eta Valladolid-eko bi lagunek eman dutela euskara ikasteko izena.

Euskaltegira dihoazen gehienak seme alabekin hitz egin ahal izateko eta hauei eskolako gaietan laguntzeko euskara ikasi nahi duten gurasoak dira. Hala ere badira inongo beharrik gabe,

ikasteko gogoia dutelako joaten diren ikasleak ere.

Irakasleen helburua, hiztun osoak lortzea da, bere bizitzako funtzio guztiak euskaraz egiteko gai izango direnak, eta horretarako ahalik eta ikasgai praktikoena prestatzen saiatzen dira, teoria erakustez gain, mintzamina asko lantzen da eta mintzagaiak errealiter egokitzen saiatzen dira, eguneroko egoerak, gertaerak, planteatzen dituzte, ikasitakoa erabilgarria izaten ahalegintzen dira.

darien lanari egokitutako ikastaroa ematen jarraituko du aurten ere.

Bi euskaltegiko irakasleen esanetan, euskara ikastea zaila egiten zaie ikasleei baina zailena lan eguna bukatu ondoren, euskaltegira joatea omen da, Aste Santuko oporren ondoren, eguraldia epeltzen hasten denean askok utzi egiten omen diote euskaltegira joateari. Lan eguna bukatu ondoren ikastera joatea gogorra bada ere, txandaka lan egiten dutenek zailago izaten dute euskaltegiko taldearen martxa jarraitzea, Udal Euskaltegiak arazo hau konpondu nahian, txandaka lan egiten dutenentzat ordutegiak egokitzeko asmoa du aurten.

Baina, gure herrietako kaleko euskararen erabilpena kontuan harturik eta ikasle hauek ikasitakoa praktikan jartzeko dituzten oztopoak ezaguturik, euskaltegietako ikasle eta irakasleek kezka berbera dute, klase orduak bukatu ondoren, EGA titulua atera ondoren, zer, non eta norekin erabili daitekeen euskara Urretxu-Zumarragan.

AEKk dendari eta tabernariei zuzendutako ikastaroekin jarraituko du eta Udal Euskaltegiak txandaka lan egiten dutenentzat egokitutako ordutegiak martxan jartzeko asmoa du

Honela, AEK Bisasti Euskaltegiak iaz martxan jarri zuen tabernari eta den-







Duela urte batzuk Udal Euskaltegian ikasitako talde bat




AEKk Korrika antolatzen du bi urtetik behin.

SANTA ANASTASIAK 97

Argazkiak: Jonmikel Insausti








Aitor Gago

Ez nago ados lege horrekin. Tabernak ordu horretan itxita ze egin behar du jendeak? Etxeetan edan frantziarrak bezala? Gainera tabernak insonorizatuak daude.



Agurtzane Alzelai

Gaizki iruditzen zait. Asteburuan libre gaudelako, orduan dugulako aprobetxatzeko astia. Etxera lehenago joan nahi duenak badu joatea.

Zer iruditzen zaizu tabernen ordutegi berria?



Ainhoa Parra

Mozkortzeko eskubidea! Oñatin bezala manifestazioa egin beharko dugu, tabernen ordutegi zaharra mantentzeko. Gazteek asteburuan disfrutatu beharra daukagu eta ordutegi horrekin dena izorratzen da.



Petra Sanchez

Bikain. Aste bukaeratan piska bat beranduago ixtea normala da baina bestela 12 etan itxi ezkeri ongi dago. Ni tabernen ondoan bizi naiz eta zarata handia izaten da.



Iñigo Peñagarikano

Gaizki iruditzen zait. Hori ez da irtenbidea. Gauetz kalean gaudenean isilago ibiltzea da egin beharrekoa. Txistua ezin da gauetz jo egunez jo beharko dugu.



BAPRI
Animaliadenda
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

PUBLIZITATEA
☎ 72 57 75

TEJANO

Azken moda berria!
Ipeñarrieta, 4 Urretxu

GU Sport eskualdeko kirola zabaldu nahian

Goierrri eta Urola Garaiko kirol aldizkaria da *GU Sport*. Jabier Otermin urretxuarrari eta Jesus Mari Toral ordiziarrari bururatu zitzaien ideia baina praktikara eramateko garaian, Txema Gonzalez beasaindarraren laguntza ere izan zuten. Egun, hiru gazteak ari dira elkarlanean. Hamabostean behin, ostegunetan ikusten du argia kirol aldizkari honek. Lehen alea, aurtengo martxoan kaleratu zuten baina uda eta gero, garai berri bati ekiteko prest daude. Jabier Oterminekin egoteko aukera izan dugu eta berak eman dizkigu kirol aldizkari honi buruzko xehetasunak.



Jesus Mari Toral, Jabier Otermin eta Txema Gonzalez dira *GU Sport* eko erredaktoreak.

Nola bururatu zitzaizuen *GU Sport* sortzearen ideia?

Gure bailaran kirolaren tratamendua urria zela pentsatu genuen. Herri aldizkariak gai orokorrak jorratzen dituzten bezala, kirola soilik lantzen zuen aldizkaria egitea pentsatu genuen. Elkarrekin ikasten ibilitako Jesus Mari Toral eta ni elkartu eta GOIEKIk eskainitako ikastaro bat egin ondoren, aurrera jotzea erabaki genuen. Sortzaileak berez, Jesus Mari eta ni gara baina Txema Gonzalez beasaindarra konbentzitu ondoren, hirurok ari gara lanean aldikako kolaboratzaile batzuekin batera.

Ze eskaintzen du *GU Sport* ek?

Azken finean kirolari buruzko infoma-

zio lokala da. Gainontzeko komunikabideetan lekurik ez duten kirol taldeen informazioa lantzen dugu, analisi sakon eta emaitza guztiak kaleratuz. Hasiara batean, alea 75 pezeta kobratzen genuen baina aurrerantzean, doain banatzea erabaki dugu kuota bidez. Honela edonork jaso ahal izango du *GU Sport* etxean musutruk. Aldizkaria berrindartzeko asmoa daukagu. Horretarako, 24 orrialdekoa kaleratuko dugu azala koloretan duela. Hamabostekaria izaten jarraituko du eta hizkuntzari dagokionez, lehen bezala, erdaraz eta euskaraz izango da; nahiz eta erdarak presentzia gehiago izango duen euskarak baino.

Diru laguntzarik jaso ahal duzue?

Gipuzkoako Foru Aldunditik diru

Hasiera batean alea 75 pezeta kobratzen genuen baina aurrerantzean doain banatzea erabaki dugu

laguntza jaso ahal izateko euskara hutsean idatzi beharra dago eta guk baldintza hori ez dugu betetzen. Udaletxeetara ere jo dugu eta baiezko bakarra, Zumarragako Udalak eman digu. Hori bai, guk ez genuen udaletxeetara diru laguntza bila jo. Proiektua aurkeztu genuen eta azaldu genien subentzioa aldizkarian publizitatea sartuz eman zezaketela. Hau izango da hain zuzen, Zumarragako Udalak

egino duena. Urretxuko Udalaren erantzunik ez dugu jaso oraindik.

Orainartean, nolakoa izan da jendearen erantzuna?

Jendearen erantzuna ez da izan guk espero genuena. Aldizkaria ez dugu kalean ikusi. Horregatik erabaki dugu aurrez aipaturiko etapa berri horri ekitea. Kirol elkarten aldetik inplikazio gutxi somatu dugu. Komunikabide handiek ez dituzte kontuan hartzen eta hain zuzen ere, guk, arrazoi horregatik uste genuen talde hauek beren interesa agertuko zutela gure proiektuarekiko baina, ez da horrela izan. Nahiz eta salbuespenak egon, orokorrean jendearen inplikazio falta somatu dugu. Ikusiko dugu ea etapa berri honetan aldizkaria gehiago ikusi eta jendea animatzen den.

Ze kirol dira gehien jorratzen dituzuenak?

Saiatzen gara denei tratamendu bera ematen. Gertatzen dena zera da, 23 futbol talde daudela eta nahigabe bada ere, beti futbolak leku gehiago izaten duela. Hain zuzen, 24 orrialdeko aldizkari berria kaleratzearen arrazoietariko bat hori da, **GU Sport** en, kirol guztiek islada izatea nahi dugula.

Aurrera begira ze asmo dituzue?

Bigarren etapa honetan sartu gara eta ikusiko dugu ze nolako erantzuna jasotzen dugun. Baina gure asmoa aurrera jarraitzea da. Beti ere, hobetzen saiatuko gara. Kirol informazio asko dago. Makina bat jende dabil egunero entrenatu eta asteburuero jokatzeko, nahiz eta kirolari profesionalak ez izan. Gure ustez informazio tratamendu egokia merezi dute, meritu handia dutelako.

Nola ikusten duzu kirola eskualdean?

Krisia dagoela iruditzen zait. Taldeak osatzeko arazoak daude. Saskibaloian adibidez Urretxu eta Legazpiko taldeak elkartu egin dira. Jubenilak behinik behin elkarrekin entrenatzen dihardute. Lazkao eta Ordizikoak ere batu egin dira. Jendeak futbola gehiegi begiratzen du gainon-

tzeko kirolen kalterako. Talde askok, Zuzendaritza Batzordeak osatzeko arazoak dituzte. Bestalde, ikustera joaten den zaletu kopurua nabarmen jaitsi da kirol guztietan.

1997ko urriaren 2tik 16ra - Del 2 al 16 de octubre 1997. Número 11. Zenbakia **Gratuito**

Presentamos las fichas de 140 futbolistas del Golerri

GU Sport

berri eta Urola Garaiko Kirol Aldizkaria Revista Deportiva de Golerri y Urola Garaia

Izadi Zaleak, zilarrezko eztaiak ospatzen

MAKING OLABERRIA Nueva pasión

ETORRI eta... **ANTZIZAR** **KIROLDEGIA** **VEN** y... **A TU ALCANCE:** Calidad de vida... Salud... Movimiento... Diversión... TLF. 88 79 00

ARTYRO

Eskolan edota etxean egin behar dituzun eskulanetarako behar duzun **guztia**

Ipeñarrieta,4 ☎ **72 14 20 URRETXU**

ELIZ - KALE

LAUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA ☎ **72 04 52**

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: **72 02 55**
Erratzu, z/g URRETXU

Kahunas

O'Neill-Astore-Liberto-H.W.-Libero

Nekolalde,5 ☎ **72 56 89**

A

Secundino Esnaola,5
☎ **72 42 07**
ZUMARRAGA

deportes

APALATEGUI

Zabaleta, 3
☎ **28 77 87**
DONOSTIA

Erakusketa

✓ **Ana Mari Perez**-en pintura erakusketa Aldaketa erakusgelan, urriaren 9tik 19ra.

✓ **Alberto Cerezo**-ren pintura erakusketa Itarte Etxean, azaroaren 7tik 16ra.

Musika zikloa

Udazkeneko XII. Musika Zikloa, San Martin de Tours Elizan arratsaldeko 8etan.

✓ **Urriak 19**: Donostiako **Kanta Kantemus korua**.

✓ **Urriak 26**: Bilboko korua.

✓ **Azaroak 2**: Argentinako **Coro Juvenil del teatro San Martin** Tolosako Nazioarteko abesbatz Lehiaketako partaideak.

Lehiaketak

Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako Pintura eta Argazki lehiaketen sari banaketa.

✓ **Urriak 25**: **Sari banaketa**,

eguerdiko 12:30etan, Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusian.

✓ **Azaroaren 7tik 16ra** bitartean, **Argazki lehiaketaren erakusketa** Zumarragako Itarte etxea.

Harri eta Paleontologia

✓ **Urriaren 27tik azaroaren 2ra** bitartean, **Erakusketak, ikastaroak, txangoak... eta astebukarako harri, fosil eta harribitxien X. aretoa**.

Aldiri Kultur Elkarteak

Mikologi asteburua

✓ **Urriak 16**, hitzaldia arratsaldeko 7:30etan, Kultur Etxean.

✓ **Urriak 18**, goizeko 7:30etan irtenda, **perretxiku bilketa**, arratsaldeko 4etan Ederrena pilotalekuan, sailkatzea.


✓ **Urriak 19**, goizeko 11etatik aurrera, **perretxiku erakusketa eta dastaketa**.

Aguifes elkarteak

✓ **Urriak 15**, hitzaldia, **Zergatik ditugu gaixotasun psikologikoak?** Urretxuko Kultur Etxean arratsaldeko 3:30etan.

San Martin Jaiak

✓ **Azaroak, 7, 8, 9 eta 11 San Martin jaiak** Aginagan.



● Bere bilobek zoriondu nahi dugu aitona marxoso hau **ZORIONAK ARMANDO!!!**

● Zorion bikoitzak eman nahi dizkiogu Miguel Angeli, aita izan delako eta bere urtebetetzeagatik

ZORIONAK 2 !



● 19 urte beteko dituen neska jator eta alaitsu hau zorionduz dugu kilker batzuk. **ZORIONAK AMAIA!!!**

● Izena Mikel ezizena, Pika orain dela gutxi osaba egin dute eta bere urtebetetzea dela eta zoriondu nahi degu. **ZORIONAK!!!**

?

Nor ote da?

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

EDURNE

Punta Puntako moda !

Aukerarik hobereana gizonetako eta gazteentzat

Piedad, 18 Zumarraga ☎ 72 14 17

Lagun Arok txano bat oparitzen dizu

Honelako txartel bat*
Zumarragako **LAGUN ARO**
bulegora eramaten baduzu,
zure automobilaren
asegururako aurrekontuarekin
batera, txano ederra emango
dizugu oparitzat



AUTOMOBILA

Marka eta modelo

Daukan hobaria

Adina

* txartela banatu egingo da.



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Kalebarren, 1. Tel:72 50 22
ZUMARRAGA

